



KIRMEN URIBE
Bilbao-New York-Bilbao




elkar

Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abade apaiza	«Zumaiako komentuan zegoela abade , eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen aitortenak entzuten.»	222
abaro babesa, aterpea	«Bestea bikote gazte bat da, solasean arbola baten abarora .»	14
aduaana errenteria	«Aduanan aurretik izandako esperientzia txarra zela-eta, eskatu zuten Unibertsitatean bertan zabaltzeko kutxak...»	206
agidanean dirudienez, antza denez	« Agidanean , gazteak ez zekien oso ondo zein zen zorioneko Unamuno hori.»	81
agiri dokumentua	«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta hilobiratu zutela Leton.»	195
agnostiko ateoa, erlijioaz ardurarik ez duena	«Seminarioaren ardura zuen gotzaina ez zen gehiegi fio margolari agnostiko hartaz eta lanean ere ez zuen bakean uzten.»	61
ahapeka isilean,	«Badakizu, horrela esaten dio gure amonak hiru-lau lagun ahapeka berbetan ari direnean.»	121
aitorpen barneko kontua	«Zumaiako komentuan zegoela abade, eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen aitorpenak entzuten.»	222
aitzindari buru dabilena, buruzagia, gidaria	«Santi Meabe Tomas Meabe aitzindari sozialistaren anaia zen.»	130
aitzinean aurretik, lehenago	«Horien aitzinean begiratokia zegoen, itsasoari begira egoteko.»	14
akolito meza-laguntzaile, elizmutila	«Etxetik ateratzean txanpon batzuk uzten zituzten akolito baten irudiak zuen otarretxoan.»	53
albait -en ahalik eta -en	« Albait hobekien idazteko ahaleginean...»	51
aldarte gogaldia, umorea	«Irudiak ikusi eta tristetu egin zitzaion aldartea .»	127
aldatu landatu	«...eta azkar hazteko zuhaitzak aldatu zituen bertan. Zumarrak, makalak eta zumeak.»	193
aldiro-aldiro denbora tarte jakinetan	«Eta bizirik geratzen zen hark, aldiro-aldiro hilerrira bisita egiten zuelarik, irarrita ikusiko zuen bere izena hilarrian.»	115
alineazio zerrenda	«...patroien izenak esaten hasi zen, futbol talde bateko alineazioa balitz bezala...»	199
amaginarreba senar edo emaztearen ama, amaxea	«Bigarrenaren izena, baina, amaginarrebaren esku utzi zuen.»	76
amesgaizto lokamutsa	«Goizeko lau eta erdiak. Ondarroa. Amesgaiztoa izan dut.»	216
andana mordoa, pila	«Horren ondo gorde zuen sekretua Benignak ezen inork ez zuen ezer jakin urte andana igaro arte.»	35
anker bihozgabea, errukigabea, krudela	«Orduan mindua zabala eta erakargarria zen. Orain, aldiz, ankerra .»	149
apaizgaitegi seminarioa	«Logroñoeko apaizgaitegia atonduko zuten pintura margotzeko proposamena egin zion Bastidak Artetari.»	61
arrantzale arrantza lanbidea duena	«Ez zidan esan nork irabazi zuen, arrantzaleek edo irlandarrek.»	199
arras guztiz, erabat	« Arras desberdinak ziren bata bestearengandik.»	61
arrasto aztarna, lorratza, seinalea	«Kapitainak irribarre egin zion eta halaxe galdu zen guardiaren arrastoaren atzetik.»	194
atakan egon estualdian egon, trantzea	«Behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari zer egingo nuen nik Artetaren atakan egon izan banintz.»	18




aurki aurreko aldea (txanponetan)	«Baina aurki guztiak du bere ifrentzua.»	56
azpimarratu nabarmendu	«Egon zen kritikarik, hala ere, Artetaren fede falta azpimarratu zuenik, esan zuenik ez zuela benetan sinesten egitasmo hartan.»	66
barku itsasontzia, ontzia	« Barkua ondo sartua egon behar da itsasoan, sendo.»	199
barreiaturik sakabanatuta, zabaldua	«...hantxe zituen barreiaturik Carmenek zuri-beltzeko argazkien albumak.»	44
bataiatu bautizatu	«Eta horrela, azterketaren bat nuenean bertara eramaten ninduen eskuarekin musu ematera, nahiz eta ni neu bataiaturik ez egon.»	76
batel itsasontzitzoa	«Behin, batel txikietan sartu ginen eta aita guri arraunean erakusten saiatu zen.»	81
behin halako batean	« Behin , batel txikietan sartu ginen eta aita guri arraunean erakusten saiatu zen.»	81
belaontzi beladun itsasontzia	« Belaontzitik batel bat jaitsi zuten uretara, eta lau gizonek arraunean ekarri zuten...»	194
berariaz nahita, apropos	«Baporea berariaz sartu zuen, zubiaren erdi aroko aireari kontrastea egiteko.»	34
berri albistea, notizia	«Madrilen harrapatu ninduen ETaren azken su-etenaren berriak ...»	200
bide antza denez, dirudienez	«Artetak lehenengo bidea hautatu bide zuen, eta Picassok bigarrena.»	18
bite (alem.)	«Edatekoa ardo beltza. Danke. Bite .»	122
damu txarto egina sentituta	«...gauza batekin zegoela pozik eta gauza batekin damu .»	159
danke eskerrik asko (alem.)	«Edatekoa ardo beltza. Danke . Bite.»	122
desterratu erbesteratua, atzerriratua	«“...Unamuno deitzen den gizon batekin hitz egin du eta desterratua dago erregeari buruz eta Primo de Riverari buruz txarto hitz egiteagatik.”»	81
dohain bertutea	«Nazaretekoari buruz ari zen, funtzionatzen duela haren dohainak , berari efektua egin ziola.»	231
dohainak eduki trebetasuna eduki	«Hantxe ikusi zuten dohainak zituela mutilak eta Madrilgo “Casa de la moneda” egoitzara igorri zuten...»	133
egitasmo proiektua	«Egon zen kritikarik, hala ere, Artetaren fede falta azpimarratu zuenik, esan zuenik ez zuela benetan sinesten egitasmo hartan.»	66
egurastu aireztatu, airatu	« Egurastu egin behar da kapa, egun handirako...»	53
enparauak gainerakoak, bestiak	«Aitona Canuto eta enparauak ez ziren hil Ondarroako badian, Santander aldean baizik.»	54
entzun txarreko desobedientea	«Horrelaxe jakin zuten entzun txarrekoa izan zela amona eta ez ziela men egin gurasoen esanei.»	36
eriden aurkitu, topatu, kausitu	«Joaquin de Bustamante baporea ibili zen bazter haiek miatzen eta halaxe eriden zuen.»	55
erreplika kopia exaktua	«Haren grina ikusita, Blaschkatarrek agindu zioten hiru-lau bat erreplika egingo zituztela, proba gisa.»	205
erretilu azpila, bandeja	«Gurditxo batekin ari da afariko erretiluak banatzen.»	122
erritu zeremonia arautua	«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta hilobiratu zutela Leton.»	195




eskerga neurrigabea, itzela	«Eginbehar eskerga zen hura, hamar mural baino gehiago, eta gainera azalera irregular batean.»	16
esklabo jopua	«Afrikatik etorritako esklabo beltzek egiten zutela.»	194
estapatxo paperezko irudia edo imajina	« Estapatxoak erakutsi eta santu honen itxura edo beste honena gurako lukeela esaten zion margolariari.»	62
estimatu apreziatu, balioetsi	«Benetan estimatzen zuen ahalegina, eta, batez ere, estimatzen zuen arkitektoa.»	97
galera kaltea, galtzea	«Arrainetan negua dena, gizakietan galera da.»	12
galipota bikea, gai beltz likitsua	«Eskuz jasotzen zuten karelera galipota , hegaluzea bezala, banan-banan.»	97
gatazka arazoa	«Huraxe izan zen lehen aldia gatazkaren gordintasunaz jabetu nintzena.»	218
gogoangarri oroitzea merezi duena	«1929ko maiatzaren 23an Bastidak Arteari igorri zion eskutitza gogoangarria da.»	63
gomutan hartu oroitu, akorduan izan	«Aitonaren keinu hori betiko hartuko zuen gomutan gure amak.»	13
gordintasun mukertasuna, zakarra izatea	«Huraxe izan zen lehen aldia gatazkaren gordintasunaz jabetu nintzena.»	218
gotzain apezpikua, obispoa	«Seminarioaren ardura zuen gotzaina ez zen gehiegi fio margolari agnostiko hartaz eta lanean ere ez zuen bakean uzten.»	61
grina irrika, pasioa, gogo bizia	«Haren grina ikusita, Blaschkatarrek agindu zioten hiru-lau bat erreplika egingo zituztela, proba gisa.»	205
gura izan nahi izan	«Estapatxoak erakutsi eta santu honen itxura edo beste honena gurako lukeela esaten zion margolariari.»	62
haga langa, trabesa	«...garbitzen lagundu, hanketatik hondarra kendu eta beren bainuko arropak hagetan eskegi.»	19
harkaitz haitza, burkaitza, arroka	« Harkaitzekin jo eta hondoratu egiten ziren ontziak.»	193
harri eta zur txindututa, sor eta lor	«“Harribitxia duzue hemen”. Esan nuen ikasle eta irakasleei, harri eta zur , nik neuk ere uste bainuen koadro horren arrastoa galdua zela.»	60
harribitxi harri baliotsua, harri preziatua	«“ Harribitxia duzue hemen”. Esan nuen ikasle eta irakasleei, harri eta zur, nik neuk ere uste bainuen koadro horren arrastoa galdua zela.»	60
hats kiratsa, sunda sarkorra	«Galipotaren hatsa ez da egunetan joaten. Ez dut uste halako hatsik munduan beste ezerk duenik.»	97
hilarri hilobietako harria, lapida	«Gizonak hilarrietako izenei begiratzeko esan zigun.»	115
hilobiratu hobiratu, lur eman, lurperatu	«Agirietan argi eta garbi jartzen du erritu kristaua aintzat hartuta hilobiratu zutela Leton.»	195
hilondoan hil ondoren	«Elkarri promesa egina zioten, bizitzan ez zirela elkarrekin egongo, baina hilondoan bai, eta betiko.»	116
hiru-lau bat hiruzpalau inguru, gutxi gorabehera	«Haren grina ikusita, Blaschkatarrek agindu zioten hiru-lau bat erreplika egingo zituztela, proba gisa.»	205
hobiratu hilobiratu, lur eman, lurperatu	«Estoniarrek uste dute, elkarrekin hobiratzuz gero, geroko bizitzan ere pertsonak elkarrekin egongo direla.»	115
hurte gertu, hurbil	«Horren hurte eta ezin ezer egin.»	26
idoro aurkitu, topatu, kausitu	«Duela gutxi traste zaharren gelan, pipiak jandako mahai eta aulkien artean, koadro handi bat idoro zuten.»	61



ifrentzu azpialdea, iruntzia	«Baina aurki guztiak du bere ifrentzua .»	56
igorri bidali	«Posta igortzeko oholezko barkutxo batzuk eraikitzen zituzten, olgetakoak balira bezala, jostailuak.»	152
ikaskide ikasle elkarren ondoan	«...gaztetatik zuten harremana, Gazteizko seminarioan ikaskide izan baitziren.»	221
iradokitzaile sujerentea, zerbait aditzera eman	«Txaluparen izena gainera oso iradokitzailea da.»	123
irarri grabatu	«Eta bizirik geratzen zen hark, aldiro-aldiro hilerrira bisita egiten zuelarik, irarrita ikusiko zuen bere izena hilarrian.»	115
itaundu galdetu	« Itaundu zion jaiotze-eguna eta noiz izan zuen lehen itsasoratzea.»	88
kalko kopiak egiteko orria	«Zer gerta ere, orriaren atzean kalko bat zuela idazten zuen, idatzitako gutunen kopiak etxean gordetzeko.»	62
karel itsasontzien alboen goia	«Eskuz jasotzen zuten karelera galipota, hegaluzea bezala, banan-banan.»	97
kerak itxura	«Gogoan dut 2003ko aldi hartan indiar kerak zituen neska batekin konturatu nintzela.»	70
kirika egin zelatatu	«Prismatikoekin egiten zien kirika .»	143
komentu mojen etxea	«Zumaiako komentuan zegoela abade, eta orduak eta orduak igarotzen zituela mojen aitorpenak entzuten.»	222
kortejatu ligatu	«Galderak egiten zizkion neskari eta hura kortejatu nahian zebilela zirudien.»	71
krosko kaskoa, ontzien kanpo egitura	«Etxearen atarian lorategi bat, ondo zaindua eta hondartzan txalupa zahar baten kroskoa .»	114
landa at, kanpo	«Lan hark finkatuko zituen hala Bastidaren nola Artetaren ibilbideak, eta ezagun egingo zituen Euskal Herritik landa .»	16
lauso difuminatuak, erdi ezabatua	«“Toki-argia” portura iristen zeneko oroitzapen lausoak ditut.»	131
legez bezala, moduan	«Eta uztaiak arrainetan legez , gertaera latzak geratu egiten dira gure memorian...»	12
lehiate leihoen estalkia	«Egurrezko lehiate zabalekin.»	114
lemazain patroia, ontzi-gidaria	«...“ni neu ere lemazaina naiz eta zure ahotsa ezagutu dut itsasoko irratitik.”»	82
lurrin perfumea, aroma	«Salgai dauden produktuei begira jarri naiz. Lurrinak . Calvin Klein. ONE.»	192
makal ahul, indargabe	«Badaezpada ere Miel etxean geratu zen, makal zebilen eta hobe etxean geratzea.»	138
makal zuhaitz mota, txopoa	«...eta azkar hazteko zuhaitzak aldatu zituen bertan. Zumarrak, makalak eta zumeak.»	193
makina bat asko, ugari	« Makina bat jendek egiten zuen ihes itsasoz Lapurdi aldera.»	128
makur bihurria, okerra	«Bigarren apaizaren estiloa, ostera, makurra zen.»	52
mandatari agindupekoa, norbaiten esanetara	«Urtean behin egiten zuen bidaia ugazabaren mandatariak irlara, udan.»	151
mantelina buruzapia, mantila	«...nola bazkaltzen zuten zumezko aulkietan eta ilea mantelinaz estalirik...»	47



men egin obeditu, kasu eman, esana bete	«Horrelaxe jakin zuten entzun txarrekoa izan zela amona eta ez ziela men egin gurasoen esanei.»	36
mendeku bengantza	«Hortxe bukatu zen haien mendekua .»	197
miatu arakatu	«Joaquin de Bustamante baporea ibili zen bazter haiek miatzen eta halaxe eriden zuen.»	55
mihise oihala, izara	«Itsasertzeko argitasun hori jaso nahi zuten beren mihiseetan .»	32
ñabardura xehetasuna, zehaztasuna	«Izan ere, kontakizunek errealitatearen ñabardurak jasotzen dituzte.»	52
ogerleko duroa, bost pezetako txanpona	«Notarioak esan zien ezertan hasi baino lehen ordaindu egin behar zutela, ogerleko bina eman eta hasiko zirela lanean.»	122
olgeta josteta, jolasa	«Posta igortzeko oholezko barkutxo batzuk eraikitzen zituzten, olgetakoak balira bezala, jostailuak.»	152
olgeta-benetan erdi txantxatan	«...bota bide zion magistratuak olgeta-benetan .»	194
oroitzapen gogorapena, oroipena, gomuta	«...baina oroitzapen txarra gordetzen zuen salerosketa hartaz.»	204
ortozik oinutsik, oinetako barik	«Itsasoan, alde, ortozik ibiltzen ziren.»	137
paraninfo areto-nagusia	«Sasoiz bukatu zuen pintura Artetak, eta egun seinalatuan eskegi zuten koadroa institutuko paraninfoan .»	60
parez pare aurrez aurre	«Komunak albo banatara daude eta parez pare ispilu handi bat dago.»	192
parranda festa, jaia gozatzea	«Gazteak etxera bueltan datoz parrandatik .»	218
peskizan itxaroten, zain	«Darío de Regoyosen ondotik pintore ugari hurreratzen zen itsasaldeko argi horren peskizan .»	34
pipi sitsa, intsektu egurjalea (polilla)	«Duela gutxi traste zaharren gelan, pipiak jandako mahai eta aulkien artean, koadro handi bat idoro zuten.»	61
profitatu baliatu, aprobetxatu	«...biztanleek itsas galera haiek profitatzen zituzten lehengaiak bereganatzeko.»	193
pronto prest	«...Athletic Clubeko futbolariak zeuden bertan abioia hartzeko pronto .»	23
salerosketa tratua	«...baina oroitzapen txarra gordetzen zuen salerosketa hartaz.»	204
sargori bero jasangaitza	«“Uda arraro eta sargoria zen, Rosenberg senar-emazteak elektrokutatu zituzten uda hura, eta nik ez nekien zer egiten nuen New Yorken.”»	66
seinalatua jakinekoa, finkatua	«Sasoiz bukatu zuen pintura Artetak, eta egun seinalatuan eskegi zuten koadroa institutuko paraninfoan.»	60
seminario apaizgaitegia	«...gaztetatik zuten harremana, Gazteizko seminarioan ikaskide izan baitziren.»	221
sendo indartsu, irmo	«Barkua ondo sartua egon behar da itsasoan, sendo .»	199
sorterri jaiolekua, jaioterria	«Sendatu zelarrik, kapitainak sorterrirako bidea hartu zuen atzera ere.»	194
su-eten menia, tregoa	«Madrilen harrapatu ninduen ETaren azken su-etenaren berriak...»	200
tematu egoskor jarri, biziki saiatu, setatu	«Dena den, neure bostean pentsatu nuen gauza intimoa izango zela egunkari hura, eta horrexegatik ez nintzen tematu hura eskatzen.»	80



traza antza, itxura	«Aitzitik, hiriko neskek ez dute horrelako trazarik .»	15
trebatu saiatu, eitea hartu	«Azkenik, zuk zeuk haien ondorengo legez trebatu behar duzu...»	207
trikimailu engainu, iruzur, iruzurkeria	«...lehorreratzten ginenean konturatzen ginen honek edo besteak trikimailu horietxek erabiltzen zituela.»	198
tripulazio eskifaia	« Tripulazioak futboleak egin zuen Irlandako gazteen kontra.»	199
ubarroi itsas hegaztia (ur erroia, belea)	«Txori hur zein izango zen hasi zen pentsatzen. Ubarroia ote zen.»	85
ubera lorratza, arrastoa	«Baina hortxe galdu da margolanaren ubera .»	33
ugazaba jabea, nagusia	«Urtean behin egiten zuen bidaia ugazabaren mandatariak irlara, udan.»	151
uztai eraztuna, pieza biribila	«Eta uztaiak arrainetan legez, gertaera latzak geratu egiten dira gure memorian...»	12
xamur erraz	«Eta, ondorioz, hasierako galderak errazak izaten dira, xamur erantzutekoak.»	88
xume apal	«Apendizitis xume batek bultzatu zuen irlaren uztea.»	153
zaharkitu ajaturia, denborak hondatua	« Zaharkituak ikusi nituen, eta ni nintzen gela biribilaren erdian pinturei begira zegoen bakarra.»	200
zanga kostaldeko hegaztia, broina	«Itsas hegazti gutxi batzuek, hala nola kaioek, martinek eta zangek udan atsedean hartzeko erabiltzen dute arroka.»	25
zer gerta ere badaezpada	« Zer gerta ere , orriaren atzean kalko bat zuela idazten zuen, idatzitako gutunen kopiak etxean gordetzeko.»	62
zerbitzari morroia, otseina	« Zerbitzariak oraindik eserita daude, baina hala ere jendea telefonoak pizten hasi da.»	233
zibotekoa	«Hegazkina berri zibotekoa da, berri-berria.»	83
zipriztin txipliztada, ur parrastadoa	« Zipriztinez zipriztin urez betetzen da batela, pixkanaka-pixkanaka.»	127
zorioneko delako (zehaztugabea)	«Agidanean, gazteak ez zekien oso ondo zein zen zorioneko Unamuno hori.»	81
zume mihimena	«...nola bazkaltzen zuten zumezko aukietan...»	47